**2014KO MARTXOAREN 27KO EZ OHIKO BILKURA DEIALDIA.**

**CONVOCATORIA A SESIÓN EXTRAORDINARIA PARA EL DÍA 27 DE MARZO DE 2014.**

**ORDEN DEL DÍA - EGUNEKO GAI ZERRENDA.**

**1º** Azken bilkurako Akta **/** Acta última sesión.
**2º** Alkatearen ebazpenak / Resoluciones de Alcaldía
**3º** Langabetuak kontratatzeko deialdia / Convocatoria contratación de desempleados
**4º** Iturraskarri egitasmoa / Proyecto Iturraskarri
**5º** Etxeberriko kontzejuak sustatutako xehetasun azterlana / Estudio de Detalle promovido por el Concejo de Etxeberri.
**6º** Arakilgo Udalak sustatutako Norma Subsidiarioen aldaketa / Modificación de Normas Subsidiarias promovida por el Ayuntamiento de Arakil.
**7º** Gizarte estutasun egoeretan diren pertsonei eta familiei diru-laguntza zuzenak/ Prestaciones económicas directas destinadas a personas y familias en situación de emergencia social.
**8º** Arakilgo lurralde antolaketarako estrategiaren hitzarmena / Concertación de la Estrategia y Modelo de Ocupación de Arakil.
**9º** Txakurrak izatea arautuko duen Udal Ordenantza / Ordenanza municipal que regulará la tenencia de perros.
**10º** Arakilgo udalari dagokion garraio publikoari buruzko mozioa / Moción sobre el transporte público correspondiente al Ayuntamiento de Arakil.
**11º** Etxarrengo frontoia erabiltzeko hitzarmena / Convenio para el uso del frontón de Etxarren.
**12º.** Alkatearen txostenak / Informes de Alcaldía
**13º.** Eskaera eta galderak / Ruegos y preguntas

En Arakil, a 18 de marzo de 2014.

RUBÉN GOÑI URROZ

AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARAKIL * ARAKIL 'GO UDALA *

| | |
|---|---|
| **Día:** Jueves 27 de marzo de 2014. | **Eguna:**2014ko martxoaren 27 a |
| **Hora:** 20:30 horas | **Ordua:** 20:30 etan |
| **Lugar:** Sala de Plenos | **Tokia:** Batzar Gelan. |

| 2014KO MARTXOAREN 27KO EZ OHIKO BILKURAKO AKTA | ACTA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE PLENO DE 27 DE MARZO DE 2014. |
|---|---|
| Irurtzunen, Arakilgo Udaleko bilera aretoan, 2014ko martxoaren 27ko 20.40tan, Udalbatza biltzen da ohiko bilkura ospatzeko deialdiaren arabera. | En Irurtzun, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Arakil, a las 20.40 horas del día 27 de marzo de 2014, se constituye la Corporación a fin de celebrar sesión ordinaria conforme a convocatoria cursada. |
| Etortzen dira: | Asisten: |
| Presidentea: Rubén Goñi Urroz Jauna | Presidente: Don Rubén Goñi Urroz |
| Zinegotziak: Francisco Javier Huarte Garro jauna, Alicia Izko andrea, Jose Luis Garcia Urbistondo jauna, Juan Jose Madariaga Orbea jauna, Miren Gotzone Sainz de Murieta andrea. | Concejales: Don Francisco Javier Huarte Garro, Doña Alicia Izco, Don José Luís García Urbistondo, Don Juan José Madariaga Orbea, Doña Miren Gotzone Sainz de Murieta. |
| Idazkaria: Imanol Goñi Razquin Jauna. | Secretario: Don Imanol Goñi Razquin. |
| Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira: | Por orden del señor alcalde, se inicia la sesión siguiendo el orden del día de la convocatoria, siendo tratados los siguientes asuntos. |
| **1. AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.** | **1. APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.** |
| Espedientean, azken bilkurako aktaren zirriborroa ageri da, 2014ko urtarrilaren 30koa. Juan Jose Madariaga jaunak adierazten du azken aktako laugarren gaian Hirigintza eta Ingurumen Udal batzordean ez dela bere izena jasotzen eta bere parte hartzea erabaki egin zela. | Consta en el expediente el borrador del acta de la sesión celebrada el día 30 de enero de 2014. Don Juan José Madariaga apunta que en el punto 4 de la misma, en la configuración de la comisión de Urbanismo y Medio Ambiente no se refleja su nombre cuando se acordó que formaría parte de la misma. |
| Idazkariak akatsa konfirmatzen du eta zuzenduko dela adierazten du. | Desde Secretaría se confirma el error y se procede a su corrección. |
| **Gaia aztertu ondoren Udalbatzak aho batez erabaki du:** | **Visto cuanto antecede el Pleno acuerda por unanimidad:** |
| - 2014ko urtarrilaren 30ko bilkuraren akta onartzea. | - Aprobar el acta de la sesión del día 30 de enero de 2014 |
| **2. ALKATEAREN EBAZPENAK** | **2. RESOLUCIONES DE ALCALDIA** |
| Azken bileratik gaur arte Alkateak emandako ebazpenen berri eman du: 2014ko 24 ebazpenetik, 2014ko 69 ebazpena arte, biak barne. | El Alcalde procede a la lectura de las resoluciones de alcaldía emitidas desde la última sesión: Desde la Resolución nº 24/2014 hasta la nº 69/2014 ambas inclusive. |

| | |
|---|---|
| **3. LANGABETUAK KONTRATATZEKO DEIALDIA** | **3. CONVOCATORIA CONTRATACIÓN DE DESEMPLEADOS.** |
| Alkateak azaltzen dio Udalbatzari Arakilgo langabetuak kontratatzeko espedientearen egoera. Zerbitzu anitzeko 5 peoi 6 hilabetez eta lanaldi osoan kontratatuko dira eta Gizarte dinamizatzaile bat 6 hilabetez eta lanaldi erdiarekin baita ere kontratatuko da. Aldi berean Arakilgo Kontzejuetan bisitak egin eta gero lan pila bat dagoela aurreikusten da. Aurten ere bai interesatuen egoera pertsonala baloratuko da. Beste aldetik peoien deialdian euskararen ezagutzaren puntuazioa aldatuko da ezagutzaren maila ezberdinei puntuazio ezberdina emanez. Gizarte dinamizatzailearen kasuan euskararen ezagutza ezinbestekoa izango da deialdian parte hartzeko. Bukatzeko apirilaren bukaeran probak egingo dira eta maiatzaren hasieran kontratuak hasiko dira. | El Alcalde toma la palabra para informar a la Corporación sobre las características de las convocatorias para la contratación de desempleados. Una convocatoria será para la contratación de 5 peones de servicios múltiples a jornada completa durante 6 meses y la otra convocatoria será para la contratación de un dinamizador social a media jornada durante 6 meses. Asimismo tras las visitas a los Concejos del Valle se considera que hay muchos trabajos para realizar. Se mantiene la puntuación de las diferentes situaciones sociales de los aspirantes. Se modifica la puntuación correspondiente al conocimiento de euskera para las plazas de peón puesto que para la plaza de dinamizador el conocimiento de euskera será preceptivo. En el caso de los peones se otorgará una puntuación diferente en base a los diferentes grados de conocimiento de euskara. Las pruebas se realizarán a finales de abril con el objetivo de que los contratos se inicien en mayo. |
| Francisco Javier Huarte jaunak adierazten du ez dagoela konforme adin ezberdinei puntuazio ezberdina ematearekin. | Don Francisco Javier Huarte manifiesta su no conformidad con la puntación otorgada en base a la edad de los aspirantes. |
| Juan Jose Madariaga jaunak adierazten du estatistikak erakusten duela adin jakin batzuetan lana eskuratzeko arazo gehiago daudela. | Don Juan José Madariaga manifiesta que estadísticamente se puede comprobar como personas de determinadas edades tienen más problemas para el acceso a un puesto de trabajo. |
| Idazkariak azaltzen du kontratu hauek finantziaziorako diru-laguntzaren ukazioaren zergatia. | El Secretario toma la palabra para explicar los motivos de la denegación de subvención del Servicio Navarro de Empleo para la financiación de estos contratos. |
| Gaia aztertu ondore, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | Visto cuanto antecede, **el Pleno acuerda por unanimidad:** |
| **1.** Arakilgo Udaleko Zerbitzu anitzeko 5 peoi 6 hilabetez eta lanaldi osoan kontratatzeko deialdia onartzea<br>**2.** Arakilgo Udaleko Gizarte dinamizatzaile bat 6 hilabetez eta lanaldi erdiarekin kontratatzeko deialdia onartze.<br>**3.** Nafar Lan Zerbitzuari eskatzea Arakilen dauden langabetuei informazioa | **1.** Aprobar la convocatoria para la contratación de 5 peones de servicios múltiples del Ayuntamiento de Arakil.<br>**2.** Aprobar la convocatoria para la contratación de 1 dinamizador social del Ayuntamiento de Arakil.<br>**3.** Solicitar al Servicio Navarro de |

| | |
|---|---|
| helaraztea.<br>**4.** Arakilgo Kontzejuetan Bando informatiboak jarri. | Empleo que remita la información a los desempleados de Arakil.<br>**4.** Publicar los bandos informativos en los Concejos del Valle de Arakil. |
| **4. ITURRASKARRI EGITASMOA** | **4.PROYECTO ITURRASKARRI** |
| Alkateak azaltzen du Mikel Razkin jaunak, Irurtzungo aldeko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko langileak eta Iturraskarri egitasmoaren arduradunak egindako proposamena. Aixitako usategietatik, Etxeberritik, Egiarretatik eta Hiriberritik, Ihabarko kontzejuraino dauden bidexkak sasiz garbitzea planteatzen ari da. Lan horri dagokion aurrekontua 4.200 eurokoa da. | El Alcalde toma la palabra para explicar la propuesta de Don Mikel Razkin, educador social de Mancomunidad de Servicios Sociales de la Zona de Irurtzun y responsable del proyecto Iturraskarri. Se plantea la posibilidad de desbrozar senderos desde las palomeras de Aixita hasta el Concejo de Ihabar pasando por Etxeberri, Egiarreta e Hiriberri. La inversión correspondiente a Arakil será de 4.200 euros. |
| Gaia aztertu ondoren, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | Visto cuanto antecede, **el Pleno acuerda por unanimidad:** |
| **1.** Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko Mikel Razkin jaunak aurkeztutako Iturraskarri egitasmoaren barruan Arakilgo Udalari dagokion aurrekontua, hau da 4.200 eurokoari ontzat ematea.<br>**2.** Akordio honen berri ematea Mikel Razkin juanari. | **1.** Aprobar el presupuesto de 4.200 euros correspondiente al Ayuntamiento de Arakil en el marco del proyecto Iturraskarri presentado por Don Mikel Razkin de Mancomunidad de Servicios Sociales de la Zona de Irurtzun.<br>**2.** Notificar el presente acuerdo a Don Mikel Razkin. |
| **5. ETXEBERRIKO KONTZEJUAK SUSTATUTAKO XEHETASUN AZTERLANA.** | **5. ESTUDIO DE DETALLE PROMOVIDO POR EL CONCEJO DE ETXEBERRI** |
| Idazkariak azaltzen dio Udalbatzari nola oraindik gaurko egunean alegazioak aurkez daitezkeen. Beraz ez litzateke zuzena izango Etxeberriko Kontzejuak sustatutako xehetasun azterlanaren behin betiko onespena eztabaidatzea. | El Secretario toma la palabra para informar a la Corporación de que todavía hoy se pueden presentar alegaciones motivo por el cual no es correcto debatir la aprobación definitiva del estudio de detalle promovido por el Concejo de Etxeberri. |
| Udalbatzak informazioa jaso du. | El Pleno se da por enterado. |

| | |
|---|---|
| **6.ARAKILGO UDALAK SUSTATUTAKO NORMA SUBSIDIARIOEN ALDAKETA.** | **6.MODIFICACIÓN DE NNSS PROMOVIDA POR EL AYUNTAMIENTO DE ARAKIL.** |
| Alkateak azaltzen dio Udalbatzari Arakilgo Norma Subsidiarioko 67. artikuluaren aldaketaren zergatia. Artikulu honek ezartzen du nekazaritza-ustiategiek bidetatik 6 metroko distantzia mantendu behar dutela eta ez 35/2002 Foru Legeak ezartzen duen 3 metroko distantzia. Gaur egun Arakilen badago eskaera bat nekazaritza-ustiategi bat handitzeko eta sustatzaileak ezin du bete 6 metroko distantziaren exijentzia. Beraz proposatzen da halako kasuetan onartzea bidetatik 3 metroko distantzia bermatzen dituzten handitze obrak. Aldaketak eragingo die bakarrik gaur egun dauden nekazaritza-ustiategiei. Etorkizun batean egingo diren nekazaritza-ustiategi berriek bidetik 6 metrora eraiki beharko dira. | El Alcalde informa a la Corporación el porqué de la modificación del art. 67 de las Normas Subsidiarias de Arakil. Dicho artículo establece que las explotaciones ganaderas deberán mantener una distancia de 6 metros a camino cuando la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo estable 3 metros. En Arakil en la actualidad existe un caso de una solicitud para ampliación de una explotación ganadera que no puede cumplir con los 6 metros establecidos en las NNSS motivo por el cual se platea la posibilidad de autorizar ampliaciones a 3 metros de camino siempre y cuando se justifique y se acredite la imposibilidad de cumplir con los 6 metros. Se trata de una modificación que afecta exclusivamente a las explotaciones existentes. Las nuevas explotaciones deberán cumplir con la distancia mínima de 6 metros a camino. |
| Gaia aztertu ondoren, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | Visto cuanto antecede**, el Pleno acuerda por unanimidad:** |
| **1**. Arakilgo Udalak sustatutako Arakilgo Norma Subsidiarioen 67. artikuluaren aldaketari hasierako onespena ematea.<br>**2**. Espedientea publiko aurrean paratzea hilabete batez Nafarroako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarpena argitaratuz.<br>**3.** Akordio honen berri ematea Nafar Gobernuari eta Pruden Irurtzun jaunari. | **1** Aprobar inicialmente la propuesta de modificación del art. 67 de las NNSS de Arakil promovida por el Ayuntamiento de Arakil.<br><br>**2**. Someter el expediente a información pública durante 1 mes con la publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Navarra.<br><br>**3º** Notificar el presente acuerdo al Gobierno de Navarra y a Don Pruden Irurtzun. |
| **7.GIZARTE ESTUTASUN EGOERETAN DIREN PERTSONEI ETA FAMILIEI DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK**. | **7.PRESTACIONES ECONOMICAS DIRECTAS DESTINADAS A PERSONAS Y FAMILIAS EN SITUACIÓN DE EMERGENCIA SOCIAL** |
| Alkateak azaltzen dio Udalbatzari nolakoak diren Irurtzungo Aldeko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateak proposatutako deialdiaren ezaugarriak. Deialdiaren helburua da diru-laguntza ematea pertsonak irauteko izan ditzaketen oinarrizko beharrak bermatzeko. Diru-laguntza jasotzeko ezinbestekoa izango da Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko | El Alcalde toma la palabra para explicar a la Corporación las características de la convocatoria propuesta por el personal de Mancomunidad de Servicios Sociales de la Zona de Irurtzun. Se pretende poder otorgar ayudas para cubrir necesidades básicas de subsistencia. Para poder recibir dichas ayudas deberá presentarse el |

| | |
|---|---|
| teknikarien txostena aurkeztea. Horregatik guztiagatik proposatzen da 2.500 euro erabiltzea deialdi honetan. | correspondiente informe de los técnicos de Mancomunidad de Servicios Sociales. El importe propuesto para destinar a esta convocatoria será de 2.500 euros. |
| Gaia aztertu ondoren, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | Visto cuanto antecede**, el Pleno acuerda por unanimidad:** |
| **1.** Gizarte estutasun egoeretan diren pertsonei eta familiei diru-laguntza zuzenak emateko deialdia onartzea.<br>**2.** Akordio honen berri ematea Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateari dagokion kudeaketa egin dezan. | **1.** Aprobar la convocatoria de prestaciones económicas directas destinadas a personas y familias en situación de emergencia social.<br>**2.** Notificar el presente acuerdo a Mancomunidad de Servicios Sociales para la gestión de la convocatoria. |
| **8.ARAKILGO LURRALDE ANTOLAKETARAKO ESTRATEGIAREN HITZARMENA** | **8.CONCERTACIÓN DE LA ESTRATEGIA Y MODELO DE OCUPACIÓN DE ARAKIL** |
| Idazkariak azaltzen dio Udalbatzari Nafar Gobernuarekin adostutako akordioa Arakilgo Lurralde antolaketarako estrategiaren hitzarmena zinatzeko. Oraindik ez da jaso hitzarmenaren proposamena beraz ezinezkoa da gaia eztabaidatzea.<br><br>Udalbatzak informazioa jaso du. | El Secretario informa a la Corporación sobre el acuerdo adoptado con el Gobierno de Navarra para la concertación de la Estrategia y Modelo de Ocupación de Arakil. La propuesta de concierto no ha sido todavía remitida por el Gobierno de Navarra motivo por el cual resulta imposible debatir este punto del orden del día.<br><br>El Pleno se da por enterado. |
| **9.TXAKURRAK IZATEA ARAUTUKO DUEN UDAL ORDENANTZA.** | **9.ORDENANZA MUNICIPAL QUE REGULARA LA TENENCIA DE PERROS.** |
| Alkateak azaltzen dio Udalbatzari nolakoak diren txakurrak izatea arautuko duen udal ordenantzaren ezaugarriak. Aldi berean Alkateak adierazten du herritarren sentsibilizazioa da ordenantza bat baino garrantzitsuagoa eta horregatik udaletik sentsibilizazio-kanpaina luzatuko da. | El Alcalde toma la palabra para explicar las características de la ordenanza que regulará la tenencia de perros en Arakil. Asimimo considera mucho más importante la sensibilización de la población motivo por el cual se lanzará una campaña desde el Ayuntamiento. |
| Gaia aztertu ondoren, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | Visto cuanto antecede, **el Pleno acuerda por unanimidad:** |
| **1.** Arakilen Txakurrak izatea arautuko duen udal ordenantzari hasierako onespena ematea.<br>**2.** Espedientea publiko aurrean paratzea dagokion iragarkia Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratuz.<br>**3.** Sentsibilizazio-kanpainarako aurrekontua eskatzea.<br>**4.** Txakurren udal errolda sortzeko asmoarekin Osasun Zerbitzuari informazioa eskatzea. | **1.** Aprobar inicialmente la Ordenanza Municipal que regulará la tenencia de perros en Arakil.<br>**2.** Someter el expediente a información pública mediante la publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Navarra.<br>**3.** Solicitar presupuesto para preparación de campaña de sensibilización.<br>**4.** Solicitar información a Salud Pública |

| | |
|---|---|
| | a fin de crear un censo municipal de perros. |
| **10.ARAKILGO UDALARI DAGOKION GARRAIO PUBLIKOARI BURUZKO AKORDIORAKO PROPOSAMENA.**<br><br>Alkateak azaltzen dio Udalbatzari kexa eta arazo pila sortzen ari direla garraio publikoaren aldaketarekin. Horregatik guzitagatik Arakilgo Independenteen Udal Taldeak hurrengo akordiorako proposamena luzatzen du:<br><br>MOZIOA, “LA BURUNDESA” ENPRESAKO AUTOBUSAK SATRUSTEGI, ZUHATZU ETA EKAIKO HERRIETAN BERRIRO GELDI DAITEZEN ESKATZEKO<br><br>2012tik hona, La Burundesa S.A. enpresako autobusak ez dira gelditzen Satrustegi, Zuhatzu eta Ekaiko herrietan. Horrek, jakina, eragina izan du herri horietako herritarrengan.<br>2012ko abuztuan, Nafarroako Gobernuak behin betiko garraio publiko erregularra emateko arauak aldatu zituen. Hala, baimena eman zuen autobusak herri horietan eskaera zegoenean bakarrik gelditzeko.<br>Ezarritako sistema honakoa izan zen: bidaia egin nahi zen egunean bertan jakinarazi behar zen, behar besteko denboraz, bulegoko/txarteldegiko ordutegian: edota aurreko egunean, irtenaldiak bulegoko/txarteldegiko ordutegitik kanpo zirenean. Astelehenetik ostiralera bitartean, bulegora deitu behar zen, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 19:00etara; larunbat, igande eta jaiegunetan, berriz, txarteldegira hots egin behar zen (kasu horretan ordutegiak eta telefonoa desberdinak ziren).<br>Nolanahi ere, alkatetza honek uste du Satrustegi, Zuhatzu eta Ekaiko autobus-geltokiak aldatzeko erabakia ez dagoela behar bezala justifikatuta. Era berean, uste dugu ezarritako sistemak ez duela espero zen bezala funtzionatu, eta, gainera, alferrikako nahasteak ekarri dizkie erabiltzaileei (gehienetan adineko pertsonak izaten dira).<br>Gauzak horrela, herritarrek jarritako hainbat kexa jaso ditugu udaletxean. Izan ere, haien esanetan, edo deika aritu dira eta ez dute lortu bulegoko/txarteldegiko langileekin hitz egitea, edota, lortu dutenetan, erantzun desegokia jaso dute, nahiz eta behar besteko denboraz deitu. Halaber, behin baino gehiagotan gertatu | **10. PROPUESTA DE ACUERDO SOBRE EL TRANSPORTE PÚBLICO CORRESPONDIENTE AL AYUNTAMIENTO DE ARAKIL.**<br><br>El Alcalde toma la palabra para informar a la Corporación sobre las quejas y problemas que está generando la modificación de la organización de transporte público correspondiente a Arakil. Por ello el grupo Independientes de Arakil propone al pleno la adopción del siguiente acuerdo que se reproduce de forma literal:<br><br>MOCIÓN PARA QUE SE RESTABLEZCAN LAS PARADAS DE SATRUSTEGI, ZUHATZU Y EKAI DEL SERVICIO DE AUTOBUS “LA BURUNDESA”<br><br>Desde el año 2012 los vecinos de los Concejos de Satrustegi, Zuhatzu y Ekai se han visto afectados por la supresión de las paradas en el servicio de autobús que presta la empresa La Burundesa S.A.<br>En agosto de 2012 el Gobierno de Navarra aprobó la modificación de la concesión de transporte público regular permanente autorizando las paradas en estos pueblos a la demanda.<br>El sistema que se estableció fue el de avisar el mismo día, con la antelación suficiente, en horario de oficina/taquilla, y el día anterior cuando las salidas se realicen fuera de horario de oficina/taquilla. De lunes a viernes se debería llamar a la oficina en horario de 9 h a 19 h. y los sábados, domingos y festivos a la taquilla con horarios y teléfonos distintos.<br>El grupo de Alcaldía entiende que esta modificación de las paradas de autobús en Satrustegi, Zuhatzu y Ekai no ha sido debidamente justificada considerando que resulta imposible acreditar un ahorro en tiempo, distancia y coste del servicio. Asimismo nos consta que el sistema que se ha establecido no ha funcionado como se esperaba, originando trastornos innecesarios para aquellas personas, sobre todo mayores, que suelen utilizarlo.<br>Desde el Ayuntamiento se han recibido quejas de vecinos que, o bien, han estado llamando y no han conseguido contactar con |

| | |
|---|---|
| da jendea zain egotea eta autobusa ez etortzea; beste zenbait kasutan, ordea, zerbitzua aldez aurretik eta arazorik gabe eskatu duten arren, autobusa ez da bertatik pasatu, eta interesatuak taxi bati deitu behar izan dio joan nahi zuen lekura joateko (azken kasu horretan autobus-konpainiak ordaindu du taxiaren kostua). Halaber, jakin izan dugu sistema berria ezarri denetik hainbat herritarrek uko egin diotela zerbitzua erabiltzeari.<br>Horregatik guztiagatik, NAFARROAKO GOBERNUARI honakoa eskatzen diogu: Satrustegi, Zuhatzu eta Ekaiko autobus-geltokiak berrezartzea, hau da, zerbitzua 1996tik hona funtzionatu duen modu berean funtzionatzen jarraitzea. Urte hartan Arakilgo herrietan behin betiko garraio publiko erregularra egiteko kontratua esleitu zitzaion La Burundesa S.A. enpresari.<br>Gauzak horrela, erabaki dugu mozio hau honako hauei bidaltzea onar dezaten (hala badagokio): Arakilgo bailarako kontzejuei, komunikabideei, Burundesa enpresa kudeatzaileari eta Nafarroako Gobernuari.<br>Arakil, 2014ko martxoaren 27a | Burundesa o, si lo han conseguido, no han obtenido el servicio esperado a pesar de llamar con tiempo suficiente. Se han dado casos de infructuosas esperas sin que haya acudido el autobús y en algún otro caso, una vez de haber solicitado el servicio con tiempo y sin ningún problema, el autobús no ha pasado y la persona se ha visto obligada a llamar a un taxi para poder acudir a donde pretendía, si bien en este caso el coste lo ha sufragado la compañía. También tenemos constancia de vecinos que han desistido utilizar el servicio de transporte con el nuevo funcionamiento.<br>Por todo ello, SOLICITAMOS AL GOBIERNO DE NAVARRA: **el restablecimiento de las paradas de Satrustegi, Zuhatzu y Ekai tal como han funcionado desde el año 1996 en el que se adjudicó a la empresa La Burundesa S.A. el transporte público regular permanente de viajeros de uso general en los pueblos de Arakil.**<br>Acordamos trasladar la presente moción a los Concejos de Valle de Arakil para su aprobación si procede, a los medios de comunicación, así como a la empresa gestora del servicio La Burundesa y al Gobierno de Navarra.<br>En Arakil a 27 de marzo de 2014 |
| Gaia aztertu ondoren, **Udalbatza aho batez erabaki du:**<br>1. Akordiorako proposamenari Arakigo garraio publikoari dagokionari ontzat ematea.<br>2. Akordio honen berri ematea Nafar Gobernuari, Arakilgo Kontzejuei eta hedabidei. | Visto cuanto antecede, **el Pleno acuerda por unanimidad:**<br>**1.**Aprobar la propuesta de acuerdo referida al transporte público en Arakil.<br>**2.** Notificar el presente acuerdo al Gobierno de Navarra a los Concejos de Arakil y a la prensa. |
| **11.ETXARRENGO FRONTOIA ERABILTZEKO HITZARMENA.**<br>Alkateak azaltzen dio Udalbatzari Etxarrengo Frontoia erabiltzeko hitzarmenaren zergatia. Hitzarmen horretan proposatzen da Etxarrengo Frontoia erabilera Arakildarrei guztiei zabaltzea eta beste aldetik frontoiko leihoak konpontzeko beharrezkoa den inbertsioa egitea.<br>Gaia aztertu ondoren, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | **11.CONVENIO PARA EL USO DEL FRONTÓN DE ETXARREN.**<br>El Alcalde toma la palabra para explicar a la Corporación el porqué de la propuesta de convenio con el Concejo de Etxarren para el uso del frontón. En dicho convenio se propone la apertura del Frontón para su uso por parte de los vecinos de Arakil y la inversión necesaria para la reparación de los lucernarios del frontón.<br>Visto cuanto antecede, **el Pleno acuerda por unanimidad.** |

| | |
|---|---|
| **1.** Etxarrengo frontoia erabiltzeko hitzarmen proposamenari ontzat ematea.<br>**2.** Akordio honen berri ematea Etxarrengo Kontzejuari. | **1.**Aprobar la propuesta de convenio con el Concejo de Etxarren para el uso del Frontón.<br>**2.**Trasladar al Concejo de Etxarren la propuesta de convenio para su valoración. |
| **12. ALKATEAREN TXOSTENAK.** | **12. INFORMES DE ALCALDIA** |
| Alkateak azaltzen dizkio Udalbatzari hurrengo gai hauek:<br>- Etxeko egurrak.<br>- Arakilgo erroldako datu berriak<br>- Tentsio Altukoari buruzko journaldia. | El Alcalde informa a la Corporación sobre los siguientes asuntos:<br>- Leñas de hogar.<br>- Datos nuevo censo de Arakil.<br>- Jornada sobre el proyecto de Alta Tensión. |
| **13. ESKAERA ETA GALDERAK.** | **13. RUEGOS Y PREGUNTAS** |
| Ez dira egin. | No se formulan |
| Egun bereko 22:45tan gai gehiago ez dagoenez, Alkate Jaunak bukatutzat ematen d ubilera. Nik, idazkaria naizen aldetik, akta hau jasotzen dut eta egon diren zinegotziek haien adostasuna azaltzen dute haien sinaduraren bidez. | Siendo las 22:45 horas del mismo día y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por terminada la sesión, de la que yo, el Secretario levanto la presente acta que firman los concejales asistentes manifestando así su conformidad. |